

Desafío – Con Pan y Vino se anda el Camino – Desafioa

Nork hartu ahal du parte?

Banaka edo taldeka parte hartzeko aukera dago.

Nola parte hartu?

Desafioa gainditzeko, azaroaren 22tik aurrera www.pornuestroscaminos.info web orrian eskura izango dituzun sei enigmak asmatu beharko dituzu. Guzti hauek Erronkari Errege Abelbidean zehar kokatuta daude, enigma bakoitzari dagokion lekua behin asmatuta, hara bertaratu eta horren lekuko izan dadin, argazki bat atera beharko da. Eta ze nolako argazki ateratzeko, hor zuen irudimena izango da agintari!

Jokoaren epe barne gure www.facebook.com/caminosbideak facebook orrian hainbat proba aurkez daitezke, komodin hauek irabazteko behar den bultzada eman dezakete!

Zein da saria?

Erronkari Errege Abelbideko hainbat ekoizleen eskutik datorkigu, Nafarroako Mendialdeko Gazta ekoizleak eta Nafarroako Ardoaren Ibilbideko hainbat upeltegi, hain zuzen ere. Ibilbidearen amaiera ederra!

Urtarrilaren 10ean, irabazleak edo talde irabazlearen ordezkariak saria jasoko du jakinaraziko den ekitaldi batean.

Desafioaren garapena



Por nuestros caminos Gure bideetatik

Azaroaren 22tik urtarrilaren 6ra badago parte hartzea, azkenengo egun hau erantzunak jasotzeko epe-amaiera izanik.

www.facebook.com/caminosbideak facebook orriaren bitartez desafioaren jarraipena dinamizatuko da, beraz, erne bertan azaltzen denari!

Irabazlea(k)

Zuzen erantzuteagatik puntuazio gehien lortzen duena irabazle izendatuko dugu. Desafioaren garapenean azalduko diren probak gaindituz gero puntu gehiago jasoko dira. Berdinketa kasuan, desafioa gainditzeko aurkeztutako argazkien orijinaltasuna sarituko da.



“Gure bideetatik” desafioaren oinarriak

Parte-hartzaileak

- 1.- Banaka edo taldeka parte hartzeko aukera dago.
- 2.- Adin nagusikoek hartuko dute parte. Adin gutxikoek, taldekideak izan arren, ezin izango dute leihatzeke izenik eman.
- 3.- Cederna-Garalur Elkarteko langileak eta Nafarroako Erdialdeko Garapenerako Patzuergoan edota bere organismo autonomoan kontratatatuak direnak lehiaketatik kanpo geratuko dira.

Nola parte hartu?

4.- Desafioaren sei enigmak asmatu behar dira, hauek azaroaren 22an eskura izango dira. Jokoaren epe barne, gure www.facebook.com/caminosbideak facebook orrian, proba berriak aurkez daitezke, adibidez:

Antolakundearen irizpideak jarraituz, banakako edo taldeko argazki bat ateratzea. Hau epaimahaiak ebaluatua izango da.

Antolakundeak proposatzen duen gaiaren ahalik eta interpretazio leialena eta irudimen gehieneko argazkia sortzea. Kasu honetan, publikoak berak bozkatuko du, desafioaren facebook orrian, argazkiari atxikimendua emanaz. Ez ahaztu orriaren jarraitzaile bihurtu!!

5.- Parte hartu ahal izateko hurrengo datu pertsonalak eman behar dira: izen-abizenak, erabiltzaile-izena (ezizena edota talde-izena) eta helbide elektronikoa bakarrik. Taldeka parte hartuz gero, ordezkari bakar baten izena emango da.



6.- Helbide elektronikoko batek persona bat ala talde bakar bat ordezkatzeko balio izango du.

7.- Hona hemen desafioa gainditzeko erantzunak emateko bideak:

- www.pornuestroscaminos.info web orrian sartu, parte hartzeko izena eman eta enigmai erantzuteko argazkiak web orrira igo.
- Honako helbide honetara bidalitako posta elektronikoren bidez: desafio@pornuestroscaminos.info. Mezuaren gaia inskripzioa egiteko erabiltzailearen izena izango da. Argazkiak postaren eranskin gisa bidaliko dira (jpg formatuan) eta dagokion enigmaren zenbakiarekin izendatua, hau da, "enigma1.jpg", "enigma2.jpg".

Helbide elektronikoko batek bakarrik persona bat ala talde bat ordezkatzeko duela gogoratzea beharrezkoa da.

Saria

8.- Ekimen honetan protagonista izango diren bi zonaldeetako ekoizleek emandako produktuek saria osatuko dute, Nafarroako Mendialdeko Gazta eta Nafarroako Ardoaren Ibilbideko hainbat upeltegitako ardo botilak.

9.- Saria, irabazle berak edo bere ordezkari batek jasoko du. Saria emateko ekitaldia urtarrilaren 10an ospatuko da, lekua eta ordua desfiorako eratu diren orrien bitartez jakinaraziko da. (Web, facebook)

Desafioaren garapena

10.- Erantzunak emateko epea azaroaren 22tik urtarrilaren 6ra izango da.



11.- Enigmen erantzunen zuzenketa. Badago erantzunak zuzentzea, horretarako, desafioaren epe barnean jasotako azken erantzuna ontzat hartuko da. Aurrekoak sistematik ezabatu egingo dira.

Irabazleak

12.- Erantzun zuzen bakoitzak bere mailaren arabera puntuatzen du:

- Ezetz asmatu! Aurkitu eta argazkia egin: 3 puntu
- Lekuz leku! Aurkitu eta argazkia egin: 2,5 puntu
- Norberaren edo taldeko argazkia: 2 puntu
- “Publikoaren komodina” proba: Proba honekin, desafioaren facebook orrian “Atsegin dut” gehiago lortzen dituen argazkiak 3 puntu jasoko ditu. Parte-hartzaileek, gizarte-sareak baliatuz, bere ingurukoei argazkia erakutsi eta orrian bozkatzeko gonbidapena luzatu ahal diete, baita ere jarraitzailea izatekoa.

13.- Puntuazio gehien lortzen duenak irabaziko du. Epaille-mahaiak enigma zuzen eratzuna dagoen ala ez erabakiko du, Cederna-Garalur Elkarteko eta Erdialdeko Garapenerako Patzuergoko langile teknikoez osatuko da eta erabaki hori ezeztazina izango da.

14.- Berdinketa gauzatuz gero epaimahaiak argazkien orijinaltasuna sarituko du, Cederna-Garalur Elkarteko eta Erdialdeko Garapenerako Patzuergoko langile teknikoez osatuko da eta erabaki hori ezeztazina izango da.

Argazkiak

15.- Enigmei erantzuteko bidaltzen diren argazkiak parte-hartzaileen lan originalak izango dira, ez dira onartuko hirugarrenen lanak eta parte-



Por nuestros caminos Gure bideetatik

hartzaileek bere gain hartuko dute aurkeztutako lanen gain hirugarrenen eskubiderik ez dutelako ardura.

16.- Argazkien bidalketak erakunde antolatzaileei erabilera-lagatzea ematearen onarpena Dakar; Cederna-Garalur, Erdialdeko Garapenerako Patzuergo eta bere Tokiko Ekintza Taldea, hain zuzen ere. Beste agindurik ez bada jakinarazten, autoretza, emandako erabiltzaile-izenarekin adieraziko da.

“Gure bideetatik” Erdialdeko Tokiko Ekintza Taldearen eta Cederna-Garalur Elkartearen elkarlaneko proiektua da. Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasuneko FEADER-ek finantziatuta.

